



Pablo d'Ors

Debozioa

Itzulpena gaztelaniatik: Ane Garcia



Galaxia Gutenberg

PABLO d'ORS

Debozioa

Itzulpena gaztelaniatik:
Ane Garcia

Galaxia Gutenberg

**Galaxia Gutenberg,
Todos Tus Libros saria**
Argitaletxe Proiektu Onenari, 2023,
CEGALen eskutik (Confederación Española
de Gremios y Asociaciones de Libreros).

Argitaletxea:
Galaxia Gutenberg, S.L.
Av. Diagonal, 361, 2.º 1.ª
08037-Bartzelona
info@galaxiagutenberg.com
www.galaxiagutenberg.com

Lehenengo edizioa: 2025eko otsaila

© Pablo d'Ors, 2025
© Galaxia Gutenberg, S.L., 2025

Aurreinprimatzea: Maria Garcia
Inprimatzea eta koadernatzea: Romanyà-Valls
Sant Joan Baptista, 35, La Torre de Claramunt-Bartzelona
Lege-gordailua: B 58-2025
ISBN: 978-84-10317-75-8

Lan hau edozein modutan erreproduzitu, banatu, publikoki
komunikatu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da ezinbestean,
legeak ezarritakoak salbuetsita. Lan honen zatien fotokopiak egin
behar badituzu edo horiek eskaneatu behar badituzu, jo hona: CEDRO
(Centro Español de Derechos Reprográficos); www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 45.

*Gonzalo Rodríguez-Frailer,
miresmenez, adeitasunez eta esker onez*

ERRUSIAR ERROMESA

Pablo d'Orsen bertsioa

«Ez diogu esploratzeari utziko,
eta gure esplorazioaren helburua helduko da
hasi ginen lekura itzuli
eta lehenengoz ezagutzen dugunean leku hori.»

T. S. ELIOT

I. EKITALDIA

Bihotzaren otoitza

1. LUR-JABE ERRUKIORRA

Egun batez, eliza batean sartu nintzen otoitz egi-
tera eta, mezan zehar, honako esaldia aditu nuen:
«Errezatu ezazue etengabe». Hiru hitz horiek
–errezatu ezazue etengabe– horren geratu zitzaiz-
kidan iltzatuta, ezen galdera hausnartzen hasi
bainintzen: nola izan zitekeen posible etengabe
errezatzearena, bizitza honetan hamaika zeregin
eta ardura badugu, zein baina zein desberdina-
goa? Hala, elizatik atera nintzen nire kolkorako
galdegin bitartean ea aurkituko ote nuen hori
azalduko zidanik, eta, burutik ezin kendu ibili
nintzenez, bi egun geroago ekin nion bideari, auzi
hori argituko zidan norbaiten bila. Halaxe bihur-
tu nintzen erromes.

Ni nor naizen? Jainkoaren graziaz, kristaua
naiz; nire ekintzez, zalantzarik gabe, bekatari itze-

la; pixkanaka aurkitu dut erramesa naizela bokazioz, beti bainabil alderrai, alde batetik bestera. Hitza eta ogia, ez dut besterik: bularrean, alkandoraren azpian, Biblia santua eta *Filokalia*, nire liburuak; bizkarrean, ogi lehorrez betetako zakua... Ez dut besterik, baina ezta hori baino gutxiagorik ere!

*

Hasierako ikerketan, lur-jabe errukior baten berri izan nuen lehenik, zeina alboko herrian bizi baitzen. Esan zidatenez, gizon hura ez zen ia etxetik ateratzen, eguna ematen baitzuen liburu errukiorrak irakurtzen eta berak errezatzeko eraikiarazi zuen kapera txikian Jainkoari otoitz egiten.

Lur-jabe hark irribarre egin zidan aurrez aurre izan ninduen bezain pronto.

–Aditu dut pertsona jainkotiar eta zentzuduna zarela –esan nion diosal modura–. Horregatik eskatzen dizut, atsegin baduzu, niri azaltzeko zer esan nahi duten Apostoluaren hitzek: «Errezatu ezazue etengabe». Nola da posible halakorik, denok baldin badugu beti zeregina?

Atzera egin zidan irribarre. Oraindik ikus dezaket haren irribarre zabala.

–Ni ez naiz bilatzen duzuna –erantzun zidan itxaronaldi luze samar baten ostean–. Nik ez dut

halako galdera sakonari erantzuteko hizkirik –eta irribarre egiten jarraitu zuen, samurtasun amaigabez–. Baina hemendik *versta* gutxira baduzu erre-tore bat, zeinari entzun baitizkiot nik inoizko ser-moirik onenak. Hark azalduko dizu zer den otoitza, nola egin berau eta zeintzuk dituen frui-tuak.

Jarraian, eskale bat banintz bezala, zerbitzari bati eskatu zion biderako janaria eman ziezadala, nahiz eta nik behin eta berriro errepikatu ez nuela ezer behar. Ogi biribil bero bat ere onartu nion, eta eskerrak emateaz bat sartu nuen zorroan; baina be-rak, horren zulatuta ikusi zuen zorroa, ezen hori sendoagoa eta hobea zen batekin ordezkutzen te-matu baitzen, eta horregatik ere eskerrak eman nizekion.

Gero, ni hartzeko agertu zuen irribarre berberaz agurtu ninduen. Ez nintzen ausartu –nik nahi nuen moduan– hari galderak egiten jarraitzen, argi utzi baitzidan enbarazu egiten niola. Haatik, egiazki, elkarrizketa hark areagotu egin zuen espirituala den horrekiko haurra nintzenetik sentitu dudan atxikimendu eutsiezina.

2. ERRETORE MOTELA

Udako egun argitsua zen eta mezarako deia barreiatzen zuten kanpaiek.

–Ez duzu korrika ibili beharrik –esan zidan nekazari batek, presaka nenbilela ikusita–. Baduzu aski denbora. Herri honetako erretorea patxada-tsua da eta elizkizuna, berriz, luzea –ohartarazi zidan.

Arrazoi zuen: luze iraun zuen liturgiak, moteltasun gehiegizko eman baitzuen meza gizonak, zurbil eta zimel. Alabaina, haren sermoia horren zegoen sentimenduz mukuru, ezen hunkitu egin baininduen.

–Zer-nolako errukiz dioen ofizioa berorrek, aita –esan nion amaitu ostean–, eta zeinen mantso!

–Bai –erantzun zidan hark, niri zeharka begiratu artean–; eta hori dagit jakinik eliztarrek ez dute la gustuko eta marmarka ibiltzen direla. Baina ezin dut ekidin. Eukaristia-otoitzaren hitz bakoitza esan aurretik, hitz hori berori ahogozatzea gustatzen zait.

Sakristian geunden. Parean nuen horman, ikono zoragarri bat eta tamaina ia naturaleko gurutze bat zeuden zintzilik.

–Aitor dut gustuko dudala irakurtzea –onartu zuen erretoreak, erdi atseginez erdi lotsaz, ikonoa

miresteari utzi eta liburuz betetako apalategi bati begira geratu nintzenean.

Meza-jantzia eta alba erantzi zituenean, hantxe bertan eseri ginen, mahai biribil baten aurrean. Erretoreak ulertu zuen konfesio-eskean nenbilela, baina nik gauza bakarra jakin nahi nuen: zer egin behar nuen Jainkoarekin etengabeko harremantegotan egoteko.

*

Nire ardura azaldu nion bezain pronto, apaiz mantso hark –zeina gauza orotarako baitzen patxadatsua, ez soilik elizkizunetan–, liburu lodi bat atera zuen bere idazmahaiaren tiradera bate-tik, eta ohartarazi zidan oso baliotsua zela ale hura.

–Hamar kopek ematen didan pertsona orori nahi duena irakurtzen diot Jainkoaren azken judizioaz eta infernuan pairatuko ditugun sufrikarioez –hasi zitzaidan, irri lehor eta behartuz.

Baina, gero, erabat aldatu zitzaion aurpegia.

–Aitortuko dizut: betiereko suaren erdian zizareek bekatariak nola jango dituzten irakurri nuenean horrenbeste izutu nintzen, ezen, ordutik, bat-batean etortzen baitzaizkit pentsamendu obsesiboak.

Gero, gehiegi hurbildu zitzaidan eta ahots apalez galdetu zidan, inor ate atzetik gu entzuten ariko balitz bezala.

–Zuk uste duzu egia dela liburu honek dioena? Zuk uste duzu berpiztu egingo garela?

Harri eta zur geratu nintzen interpelazio horren aurrean. Ezin imajinatuzkoa zen niretzat maila horretako gizasemeak halako zalantzak edukitzerik, eta are gutxiago hura meza ematen ikusi ostean, halako debozioz.

Baina ez zen nire erantzunaren zain geratu.

–Duela ehun urte edo gehiago hil zirenen errautsik ere ez da geratzen dagoeneko. Inor ez da beste mundutik itzuli, beraz... Nork daki gizakia hil ostean usteldu eta lurraren azaletik betirako desagertzen ote den, arrastorik utzi gabe!

Erretore hark, aldibereko sinesgaiztasun eta debozioz, ni asaldatzea lortu zuen.

–Liburu hau –eta bere eskua horren gainean erortzen utzita, izutu egin ninduen– apaizek idatzi zuten gu izu-larrian bizi gaitezen: meneko. –Eta barre lazgarria egin zuen, elizgizon bati sekula imajinatuko ez niokeen moduan–. Hala, nahigabe eta behar artean pasatzen duzu bizitza eta, hori gutxi balitz bezala, beste munduan... ez da ezer egongo!

Aurpegia aldatu zuen beste behin, eta modu izugarrian zurbildu zen haren bisaia.

–Aitor dizut pentsamendu horiek guztiek sufriarazi egiten didatela –amaitu zuen, eta begiratu egin zidan, nigandik erreakzioren bat espero balu bezala oraingoan.

Istorio hori entzun nuenean, errukitu beste aukerarik ez nuen izan. Entzunak nituen jakintsu eta libre-pentsalarien ohiko eszeptizismoak; baina, egia esan... apaizen artean ere ernatzen dira eszeptizismoa eta sinesgaiztasuna! Erretore hura gizon zinez konplexua zen niretzat, eta halaxe esan nion. Haren arima poliedrikoak bide propioa egingo zuen Jainkoarenganaino, baina bide hura ez zen, inola ere, nirea. Hala, nire bilaketari atzera heldu behar izan nion, nora jo oso ondo ez nekiela.

Baina bilatzen nuen hori ez zegoen urrun. Bilatzen duguna ez dago inoiz urrun, bilaketaren itua Jainkoa bada.

Alde egin aurretik, bedeinkapena emateko eskatu nion, bai hark muturreko moteltasunez eman ere, meza eman zuen bezalaxe.

3. ABADE ABEGIKORRA

Erretore tormentatu harekin izandako enkontru zapuztuaren ostean, otoitzean murgiltzeko nuen desira horren bihurtu zen bizia, ezen loa eragozten

baitzidan. Zorionez, berrehun *versta* harago, monasterio batera iritsi nintzen; izan ere, bertako abade entzutetsuaz esaten zutenez, zinez bertutetsua eta abegikorra zen.

–Entzun dut uneoro otoitz egin beharra dagoe-la, baina ez dakit nola egin –esan nion, azkenean harrera egin zidanean, eta ez zen horren erraza izan hori lortzea–. Berorri eskatzen diot, aita –ez nuen argi nola hitz egin behar nion– azaldu diezadala.

Ahalik eta laburren jardun nintzaion, ohartarazi baitzidaten abadeak zeregin pila bat zuela eta, ondorioz, ez niola behar-beharrezko denbora baino gehiago lapurtu behar.

–Ez dakit, anaia maitea –erantzun zidan–, nik ez dakit ezertxo ere horrez guztiaz.

Zur eta lur geratu nintzen: halako gizon itzaltsuak eta, hori gutxi balitz bezala, monasterio baten arduradun nagusiak, erabateko naturaltasunez esan zidan berak ez zekiela zipitzik ere otoitz-kontuez. Are gehiago harritu ninduen hark esku-ahurrak erakutsiz eta bekainak goratuz irribarre egin izana niri, lur-jabe errukiorrak egin bezalaxe. Baina elkarrizketa ez zen hor amaitu.

–Eskertu iezaiozu Jainkoari –esan zidan orduan– zure baitan piztu izana etengabeko otoitzeko irrika eutsiezin hori. Errekonozitu ezazu Jainkoaren deia horren baitan; baina, mesedez

–eta hatz erakuslea jaso zuen–, lasaitu zaitez. Otoitzak berak errebelatuko dizu nola egin otoitz gelditu gabe –ziurtatu zidan–; baina denbora behar da horretarako, denbora pila bat –eta eskuak astindu zituen, bilatzen nuen hori aurkitzeko beharko nuen urte piloaz ohartu nendin–. Egizu otoitz beti, egizu otoitz gehiago eta gogotsuago –esan zidan, jarraian atera lagundu eta eskua luzatu aurretik, eraztunean muin eman niezaion–. Barkatu horrenbeste hitz egin izanagatik –esan zidan, nik muin eman ostean–. Aita santuek baieztatzen dutenez, elkarrizketa, jainkotiarra izanagatik, berriketa baino ez da gehiegi luzatzen bada. Egizu otoitz nigatik –eskatu zidan, zintz egiteko baliatuko zuen zapi bat astindu artean–, Jainkoak, haren gupida infinituaz, lagun diezadan monasterio hau gobernatzen.

Ahaztu gabe luzatu zidan haiekin behar nuen denbora igarotzeko gonbita. Abegikor sona ez zen funsgabea, inondik inora; baina haren hitzek ez zidaten bilatu bezalako kontsolamendurik eskaini.

–Nire atsedanak ez du teilaturik behar, baizik eta irakaspen espiritualala –ausartu nintzen esatera; orduko hartan, gutxienez, ez nintzen isilik geratu–. Ez dut janaririk behar, ogi lehor piloa dut zorroan –nire ulertu ezina gero eta mingarriagoa zitzaidan.

–Jainkozko graziak lagun zaitzala zure bidean –opa zidan–, Rafael jainkoak Tobias lagundu zuen bezala!

Mundua erabat zoratu zelako sentipenarekin irten nintzen hizketaldi hartatik: apaizak, zeinak fedearen eredu izan behar baitziren, zalantzak hartuta bizi ziren; monjeak, zeinak Jainkoari emanda bizi baitira, zereginez lepo bizi dira, gainerakoei entzuteko denborarik gabe. Abade santu hark, us-tez otoitzean aditua behar zuenak, ez zidan ezertxo ere argitu! «Otoitz egiterakoan, ez dugu asmatzen, ez zer, ez eta nola», dio San Paulok. Horixe zen, hain zuzen, nire egoera.

4. ATEZAINA ETA *FILOKALIA*

Jainko-egarria ukigabe nuela monasteriotik irtear nengoela, monjeetako batek, anaia atezainak, ni horren atsekabetuta ikusirik, harekin geratzeko gonbita luzatu zidan.

Ez nuen egundo imajinatuko hark erakutsitakoa bezain zelda txikirik bazenik. Monje-gela hartan etzaleku bat, mahai gisa erabiltzen zen taula bat eta banketa bat baino ez zeuden. Azken hartan esertzera gonbidatu ninduen anaiak, eta bera zutik egon zen uneoro.

Aurkibidea

ERRUSIAR ERROMESA,
Pablo d'Orsen bertsioa

I. EKITALDIA: BIHOTZAREN OTOITZA	13
1. Lur-jabe errukiorra	13
2. Erretore motela	16
3. Abade abegikorra	19
4. Atezaina eta <i>Filokalia</i>	22
5. Basozaina	26
6. <i>Staretza</i> eta deabruak	29
7. Anaia supiztailea	33
8. Emaztea eta Biblia	37
9. Izenari hel egitea	39
10. Jainkoaren zoroa	41
II. EKITALDIA. JAUNAREN ZIGOR-MAKILA	45
11. Lapurreta	45
12. Liburuekiko maitasuna	48

13. Kapitainaren kontakizuna	50
14. Otsoa eta arrosarioa	54
15. Senar-emazteen arteko liskarra	56
16. Anfritroiaren alaba	59
17. Polizia-buruaren itaunketa	61
18. Hanka izoztuak	65
19. Hezur-mundrunezko sendagaia	68
20. Jaunaren zigor-makila	70
III. EKITALDIA. BASOETARA IHESA	75
21. Epaileren emaztea	75
22. Paseoa jaun batekin	79
23. Bukharrei buruzko elkarrizketa	81
24. Arrain-hezurra	83
25. Hildako maisuaren agerpena eta oinak garbitzea	86
26. Profetaren begitazioa eta diskurtsoa	88
27. Santu-ospea eta basorako ihesa	91

D E B O Z I O A ri
buruzko saiakera laburra

I. POETIKA: IZATEKO IDAZTEA	105
1. Klasiko bat moldatzea	105
2. Bilatzailearen ibilerak	110
3. Hesikasmoaren korrontea	121

4. Bihotza babestea	126
5. Izena errezitatzea	131
II. MISTIKA: BARRURANTZ IBILTZEA	139
1. Hasieran beti bada hitza	139
2. Maisu batengandik ikas daitekeena	147
3. Mantraren bidea	156
4. Jaunaren kontakizunean bizitzea	166
5. Iniziazio-probak	172
6. Deabruen aurkako borroka	183
7. Jainkozko borondatea onartzea	190
8. Heriotzaren mamua	198
9. Mandamentuak betetzea	205
10. Azkenean maitasuna eta batasuna gailentzen dira	214
Hamar irakaspen ibiltariarentzat	219
Epilogo	231
Eskertza	233